

# RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


## ELIKAGAIAK

2013ko LEHENENGO LAUHILEKOA

Jakinarazpenen kategorizazioa  
Jakinarazpenen jatorria  
Kutsadura iturrien sailkapena  
Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak


### JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2013ko lehenengo lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 1029 jakinarazpen izan dira. Horietatik 176 alertak izan dira (%17), 344 informazio-jakinazpenak (%34) eta 500 mugan egin diren ukapenak (%49).



### JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




**Asiari** dagokionez, kutsatzaileen % **28,5 Indiakoak** dira eta jarraian **Txina** dugu: kasuen % **26,5**. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortu duen herrialdea **Espania** izan da, % **18,5**arekin. **Afrikaren** kasuan,

**Egiptok**, jakinarazpenen **%30,5** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **AEBk** da jakinarazpen gehien sortzen duena (**% 25**).

### KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2013ko 1. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1029 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturrirei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturriak	%
Hondakinak	%29
Kutsadura biologikoa	%22,5
Mikotoxinak/biotoxinak	%16,5
Iruzurrak	%14,5
Kutsadura kimikoa	%5
Metal astunak	%4,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	%3,5
Kutsadura fisikoa	%2,5
OGMak	%2



## KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **64,5**an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % **39** eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% **45,5**) kakahuetea **Txinatik** zetorren. Bigarren lekuan, **pistatxoak** (%**22**) eta bere jatorria **Turkia eta Iran** (**100%**).

**Kutsadura biologikoei** dagokienez, **salmonelek** kutsaduren % **46** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **84,5**ean. Ikuiluetako hegaztiak izan dira produktu protagonista %45eko kasuetan, %78ko kasuetan Brasil jatorria zelarik. Beste salmonelei dagokienez, % **11a Salmonella enteritidis** dagokio (ikuiluetako hegaztiak eragin ditu kasuen % 75 eta %78ko kasuetan Europa izan da jatorria) eta % **4,5a Salmonella typhimuriumi** (behi-haragiak eragin ditu kasuen % 83,5, eta % 100ean Europa izan da jatorrizko herrialdea).

Bestalde, **E.coli** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % **26a**. Inplikaturako produktuei dagokienez: **txirla eta mukuiluak** (% **41**). **E.coli**k eragindako jakinarazpen gehienak **Europako** jatorria zuten (%60a).

Hondakinei dagokionez, **pestizidak** %**85,5a** dira eta medikamentuak %14,5a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %**69**an eta gehienak (%**67a**) **asiarrak** dira.

**Metal astunei** buruz esan behar da **merkurioak** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **64,5**. Ezpata-arraina protagonista izan da %77,5eko kasuetan eta jatorria Espainia %52an.

ITURRIA	ZK.	AGENTEA	ZK. (%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK. (%)	JATORRIA	ZK. (%)
<b>Mikotoxinak/Biotoxinak</b>	167	<b>Aflatoxinak</b>	108(%64,5)	cacahueteak	42 (%39 )	Txina	19(%45,5)
<b>Kutsadura biologikoa</b>	234	<b>Salmonella sp.</b>	108 (%46)				
		<i>Salmonella sp.</i>	91 (%84,5)	ikuiluko hegaztiak	41 (%45)	Brasil	72 (%78)
		<i>S.enteritidis</i>	12 (%11)	ikuiluko hegaztiak	9 (%75)	Asia	4 (%57)
		<i>S.typhimurium</i>	6 (%4,5)	behi-haragia	5 (%83,5)	Europa	5 (%100)
		<b>E.coli</b>	61(%26)	txirlak, mukuiluak	25 (%41)	Europa	15 (%60)
<b>Metal astunak</b>	48	<b>Merkurioa</b>	31 (%64,5)	Ezpata-arraina	23(%77,5)	Espainia	12 (%52)
<b>Hondakinak</b>	300	<b>Pestizidak</b>	256(%85,5)	barazkiak	176 (%69)	Asia	118 (%67)
		<b>Botikak</b>	44 (%14,5)	dietetikoak	25 (%58)	Asia	12 (%48)